

# EUSKAL LERROKATZE LINGUISTIKO ELEKTORALA HEGO EUSKAL HERRIAN

**Tesiaren egilea:** Haritz Garmendia Iturria

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila/Institutua:** Soziologia eta Gizarte Langintza Saila

**Doktorego-programa:** Kultura, Politika eta Gizartea

**Jakintza-arloa:** Zientzia Politikoak

**Tesi-zuzendaria:** Eguzki Urteaga

**Tesiaren laburpena:**

Hego Euskal Herriko hauteskunde autonomikoetan gertatzen den euskal lerrokatze linguistiko elektorala da lan honen ikerketa-objektua. Ondorioz, ikerketa hau kokatzen da ikerketa elektoralean eremuan.

Hauteskundearen inguruko ikerketek hazkunde handia izan dute Hego Euskal Herrian 1980ko hamarkadatik aurrera. Modu batera edo bestera, horiek guztiek aipatu dute hizkuntzaren eragina hauteslearen portaera elektoralean. Horregatik, interesgarria iruditu zitzaigun euskarak hauteslearen portaera elektoralean zuen eragina aztertzea.

Alde horretatik, bi helburu ditu azterketa honek: bata, euskal alderdi abertzaleei bozkatzeko dieten euskal hiztunek beren portaerari ematen dioten zentzua aztertzea; eta bestea, azterketa horretatik abiatuta soziologia modernoak marjinetako ikerketa-objektuak aztertzeke (kasu honetan, estatu beregainik ez duen euskal nazioa) dituen mugen aurrean, proposamen teoriko eta epistemiko alternatiboa aurkeztea.

Ildo horretatik, lan honetan ondorioztatu da euskal lerrokatze linguistiko elektorala bere osotasunean azaltzeko ezinbestekoa dela aztergai den fenomeno soziala euskal pentsamendutik (ere) aztertzea.